

Nafarroako Konkistaren justifikazio juridikoa

Roldan Jimeno Aranguren
NUP Zuzenbidearen Historiako Irakasle Titularra

Nafarroa ez zen Gaztelara era baketsuan anexionatu ez eta oinordetza-eskubideak betez ere, Aragoiko Koroaren lurraldeekin gertatu zen bezala. Anexio hori armen bidez, sinesgarriak ez ziren arrazoi juridikoa erabiliz eta Julio II.aren bulda pontifikal polemikoetan oinarritutako justifikazio kanoniko bat baliatuz egin zen. 1512an Aita Santuak *Pastor ille caelestis* bulda eman zuen jakitera, eta bulda horren arabera, Aulki Santuaren edo haren aliatuen aurka edota Luis XII.aren Frantziaren alde egiten zuen edonor eskumikatu egingo zuten.

GAKO-HITZAK: Nafarroako Erresuma · Gaztelako Koroa · Konkista · Eransketa · Zuzenbidea · Buldak · Fernando Katolikoa · Julio II.a · Luis XII.a · Nafarroako Gorteak.

The legal justification for the conquest of Navarre

Navarre was not annexed to Castile nor peacefully neither by inheritance, as was the case with the territories of the Crown of Aragon. This annexation was the result of weapons, using no compelling legal reasons and based on the justification canonical as a result of a controversial papal bulls of Julius II. In 1512, the Pope issued the *Pastor ille caelestis* bull, and according to this, anyone who acted against the Pope or their allies, or defect with Louis XII, had excommunicated.

KEY WORDS: Kingdom of Navarre · Crown of Castile. · Conquest · Annexation · Law · Bulls · Fernando the Catholic · Julius II · Louis XII · Parliament of Navarre.

Jasotze-data: 2012-02-07. *Onartze-data:* 2012-04-02.

1. Okupazio militarren justifikazioa: gerra justuaren tituluak eta igarotze-eskubidea¹

Era laburrean bazen ere, eta gertakizunen bilakaera ziurtasunez ezagutu baino lehenago, Fernando *Katolikoa* bera izan zen, konkistaren hasieran, tituluen aipamena egin zuen lehena, hortaz, berehalakotasunaren balioa dute. Hala eta guztiz ere, Elio Antonio de Nebrija humanista eta gramatikaria (1441-1522) izan zen konkistatzailearen bertsio ofiziala plazaratzeaz arduratu zena (Nebrija, 1545). Geroagoko autoreek bat egin zuten haren eraikuntzan erabiliriko argudio juridikoekin. Izan ere, Bolognan ikasiriko goi-mailako jurista izateaz gain, *Ius Commune* ongi ezagutzen zuen. Era berean, *mos italicus* izenekoan ikasketa berberak eginiko eta Salamanca eta Valladolideko katedraduna zen Juan Lopez de Palacios Rubios gaztelar jurista handiak (1450-1524) antzeko enkargua jaso zuen, eta xede horretarako, *De Justitia obtentionis ac retentionis regni Nafarroae* deritzon lana prestatu zuen². Eskarmentuko pertsona zen zeregin horretan, Gaztelako Koroak Indiak konkistatu ondoren, okupazioaren zilegitasuna justifikatzeko *Libellus de insulis oceanis* lana idatzi baitzuen.

Konkista justifikatzeko titulu juridikoen eraikuntzak hiru elementu hauek ditu: lehenbizikoa, eta zilegitasunaren funtsezko elementu gisa, **hasiriko gerraren justizia**. Nebrijaren ustez, okupazioaren karia Frantziaren kontrako Liga Santuaren gerran zetzan, eta zuzenbide naturalean eta jendeen zuzenbidean zuen oinarria. Ekintza militarra justua ote zen ala ez kalifikatzea printzeari zegokion. Nafarroaren kasuan, kontrarioen gaiztakeriatik zetorren justizia, heretikoak eta Elizaren etsaiak zirenak. Ohartu beharra dago, nafar errege-erreginak zismaren aldekoak benetan ote ziren frogatzeko ahalegin handiegirik ez zutela egin eta, horrez gain, Aita Santuaren geroko adierazpenak argudio ahulak zituela, autore legitimistek nabarmendu zuten bezala.

Bigarren argudioa aurrekoari loturik dago, nafar lurraldean ekintza militar justua aurrera eramateko Nafarroatik **igarotzeko eskubidea** edukitzea beharrezko zelako. Igarotze kontu hura zuzenbide dibinoan eta naturalean oinarriturik zegoela irizten zitzaion, erabilera komuneko ondasunen gainean egiten baita. Beraz, okupazio militarrek igarotze-eskubidean du zimendua, edo hobeki esateko, Nafarroako errege-erreginek eskubide hori ez gauzatzean. Hala eta guztiz ere, eskubidearen erabilerak segurtasuna bermatu behar zuen, eta Nafarroako errege-erreginak erresumaren integritatea errespetatuko ez zelakoan zeuden. Horrez gain, hirugarrenik, azpimarratzekoa da okupazioaren justifikazioa egiten zutenek **nazioarteko itunak errespetatzeko** titulu osagarria erabiltzen zutela, alegia, Gaztela eta Ingalaterra elkarren aliatuak ziren eta horregatik Gaztelak Guiena hartzen lagundu behar zion, alabaina, horretarako Nafarroatik igaro beharra zegoen ezinbestez.

1. Atal honetan jasotzen dudana modu zabalago batean honako liburuan aurki daiteke: Monreal Zia, G. eta Jimeno Aranguren, R. (2011): *Textos histórico-jurídicos navarros. II. Historia Moderna*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 51-271. Bertan, gaiaren inguruan dagoen bibliografia aipatzen da.

2. HOROZCO, [De iustitia et iure obtentionis ac retentionis regni Navarrae obraren lehenengo liburua itzulpena], Eloy BULLÓN Y FERNÁNDEZ (ed.) *Un colaborador de los reyes católicos: el doctor Palacios Rubios y sus obras*, Madrid: Librería general de Victoriano Suárez, 1927, 363-380.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, behin lurraldearen konkista bukatutakoan, okupatzaileari zegokion erresumaren etorkizunaz erabakitzea. Nafar kasuan, Fernando Katolikoari egokitu zitzaion lehen faseko okupazio-baldintzak ezartzea, bai eta noiz arte iraunen zuen ere. Hasierako uneetan erresumako gordailuzain zela adierazi zuen.

2. Gaztelako Koroara eranstea. Nafarroako Koroa bereganatzeko justifikazioa

Konkista gauzatutakoan, Fernando Katolikoaren nahia ez zen erresumako edukitzaile edo prekarioko jabe soila izatea. Nafarroako errege izan nahi zuen jabe gisa. Abuztuaren amaieran, aragoiarrak zein asmo zuen azaldu zuen argi eta garbi, hala ere, janzkera juridiko egokiaren beharra zuen eta, arestian aipatu bezala, argudio berberak agertu zituzten Nebrija eta Palacios Rubios izan ziren, enkarguz, jostun-lanak egiteaz arduratu ziren juristak.

2.1. Arrazoi justuaren bidezko gerra, nafar monarkia arrotza, oinordetzako eskubideak, borondatez entregatzearen ziozko lagapen librea

Arrazoi justuaren bidezko gerran oinarrituriko konkista-eskubidea da argudiatu zen funtsezko jabetze-titulua, kasu hartan Elizaren defentsa, hain zuzen ere. Arrazoi justua Liga Santuaren 1511ko Hitzarmenean azaltzen zen, haren arabera, Italiatik kanpo eginiko eskuratzeak atxikitzeak eskubidea (*iure belli*) ematen zitzairen aliatuei. Arrazoi justuaren bidezko konkista-eskubidea da, hain justu, Fernando Katolikoak aipatzen zuena 1512ko abuztuaren amaierako Manifestuan.

Halaber, Nebrija eta Palacios Rubios juristek garrantzi txikiagoko tituluen aipamena egin zuten, konkista-eskubidearen osagarri —eta justifikazio— gisa. Nafarroako zatirik handiena Iberiar penintsulan kokaturik izateak eta, bisigodoen garaian, Inperioaren legitimitatetik zuzenean zetorren boterea Espainian ezarri izanak bide eman zieten Eneko Aritzarekin hasiriko **nafar monarkia arrotza** baztertzeko. Hartara, konkistarekin batera urak arrastora sartu ziren. Bestalde, Fernandok Nafarroako Koroaren gaineko **oinordetzako eskubideak** zituen: bere aita Joanes II.ak aipaturiko eskubideez gain, bere egiten zuen Germana Foixkoaren aldarrikapena (printze- edo noblezia-dinastiaren ondasunen gainekoa). Azkenik, Iruñea eta erresumako beste leku batzuk borondatez entregatzeak atxikiriko mende-kotasuna zekarren berekin: **lagapen librea** eta, horretan oinarriturik, Koroaren gaineko jabetza-eskubidearen aipamena egiten zuen, bai eta Frantzia aldera ihesi zihoazela, nafar errege-erreginen bake-proposamenean adieraziriko terminoena ere. Lagapen libreari buruzko zehaztapenik garrantzitsuena 1513ko Iruñeko Gorreetan egin zen.

2.2. Aita Santuaren konkista-tituluen balioa

Geroago, **Aita Santuaren buldak** eztabaidagune bihurtu ziren, hala ere, ikuspegi juridiko hutsetik, bigarren mailako balio legitimatzailea zuten.

Konkista sinesgarriak ez ziren arrazoi juridikoak erabiliz eta Julio II.aren bulda pontifikal polemikoetan oinarritutako justifikazio kanoniko bat baliatuz egin zen. 1512an Aita Santuak *Pastor ille caelestis* bulda eman zuen jakitera eta bulda horren arabera, Aulki Santuaren edo haren aliatuen aurka edota Luis XII.aren Frantziaren alde egiten zuen edonor eskumikatu egingo zuten. Fernando Katolikoa konturatu egin zen Nafarroako errege-erreginak frantsesen alde jarri zirela eta, ondorioz, aipatu bezala, Aulki Santuari presioa egin zion, baita bere helburua lortu ere. Horrela, 1513ko otsailen bigarren bulda argitaratu zen, *Exigit contumacium* deitutakoa, eta, bulda horren bidez, Joan Albretekoa eta Katalina eskumikatu eta erregetzatik kendu zituzten, Frantziako errege zismatikoarekin elkartu zirelako, aitasantutzaren aurka.

Lehenago formulatu eta ezarririko titulua (arrazoi justuaren bidezko konkista-eskubidekoa) indartzera mugatzen dira. Egia esan, buldak larderiazko arma politiko gisa erabiliak izan ziren, eraginkorrak baitira edozein herrialde katolikotan, era berean, titulu juridiko gisa erabiltzen ziren. Konkista-eskubidea eta buldak titulu osagarriak dira. Buldetan, nafar errege-erreginak zismatikotzat eta zismaren aldekoen babesletzat jotzen ziren, horrenbestez, eskomikatuak eta zuzenbide kanoniko eta zibilean heretikoentzat ezarrirako zigorren pean sartuak izan ziren. Buldak puntu ahulez beterik zeuden, alde batetik, frantses autoreek Aita Santuen aldi baterako ahalari uko egiten ziotelako, eta, bestetik, nafar prozesuari zegokionez, errege-erregina kanporatuek, erabili zen prozeduran, arrazoi- eta funtsezko formalitate-gabeziaren aipamena egiten zuten.

Praktikan, Nafarroa izan zen Europako azken estatua Aita Santuen botere unibertsalaren dotrina aplikatzeari zegokionez, eta, zehazki, *Dictatus Papae* izeneko 27 zenbakiko postulatu, non «Aita Santuak errege zitalarekiko fideltasunaz libra ditzake mendekoak» jasota dagoen, hura guztia Elizaren jurisdikzioaren aurrean Estatukoaren lehentasuna berresten zen garaian. Nafarroaren kasuan, Julio II.a Aita Santuak erresumetako ahal osoa hartzen zuen bere gain aipatutako Entzikliketan: *Pastor ille caelestis*, 1512ko uztailaren 21ekoa (**1. eranskina**), eta *Exigit contumacium*, 1513ko otsailaren 18koa (**2. eranskina**). Zenbait hamarkada geroago, Aita Santuen nahiak (*dominium mundi*) eraginkortasuna galdu zuen Ingalaterran Henrike VIII.a eta Elisabet I.arenkin.

Aipatu lehen buldan —1512ko uztailaren 18ko Bloisko ituna baino hiru egun geroago emana eta, hortaz, Fernando Katolikoak Nafarroa inbaditzeko agindua eman eta bi egun geroagokoa—, Aita Santuak eskomikatzeko mehatxua egiten zien Aulki Santuaren kontra eginen zutenei, edo haien aliatuei, edo Frantziaren alde eginen zutenei; aliatuen ondasun guzti-guztiak jendaurrean jartzen zituen eta ondorengo hau dekretatu zuen «ondasun horietaz hartzen dituenak beregana ditzala». Nafar errege-erreginei zuzendurik izan arren, *Pastor ille caelestis* izeneko buldan ez zen haien inguruko aipurik egiten. Urte erdi geroago promulgaturiko *Exigit contumacium* izeneko buldak, Joanes eta Katalina Albretekoak, Nafarroako errege-erreginei zisma- eta heresia-delituak egin zituztela salatzen zuen, eta, hortaz, eskomikatzeko zigorra eta ondasunak (erresuma bera barne delarik) konfiskatzeko zigorra zegozkiela, gainera, ondasun haietaz jabetzen zen lehenak bereganatu eginen zituela zioen. Aliantza Santuaren kapitulazioan —Nafarroaren aipamenik egiten ez zuena— erresuma konkistatzeko eskubidea aitortu zion Fernando

Aragoikoari, horrenbestez, konkista bukatutakoan, jabetza gauzatu egin zuen, 1512ko abuztuaren amaieran, konkistaren justifikazioan, berak adierazi zuen bezalaxe:

Visto lo qual y visto que en la capitulación fecha por nuestro muy Santo Padre y los otros príncipes en la Liga, dize que si acaeciére que alguno de los confederados tomare algo fuera de Ytalia de los que se opusieron contra la Liga, aquello pueda retener **jure belli** y que, por esta causa, Su Alteza puede justamente retener el dicho reyno (Monreal eta Jimeno, 2011: 20. zk.).

Exigit contumacium buldaren bidez, Joan eta Katalina Albretekoak eskumikatu zituzten: «Gure aurretiko Erromako Aita Santu askoren zantzuei jarraikiz, ezen haiek errege eta enperadoreei, arrazoi arinagoengatik ere, zentsura berbera aplikatu zieten, aginte apostolikoarengatik eta eskumen osoz, Juan eta Katalina Albretekoak eskumikaturik, anatematizaturik, madarikaturik daudela eta zismatiko eta herejeei laguntza emateagatik errudun eta estatuaren eta betiko tormentuaren hobendun direla aldarrikatu eta adierazten dugu, eta errege titulu, ohore eta duintasunez desjabetuak direla, eta haien erresumak, jaurerriak eta edozein ondasun publiko egiten ditugu, eta haien guztia haiez guztiez jabetu edo jabetuko direnek, gerra saildu eta justuenean eskuratu bezala, bere egin dezaten».

Eliza usteldu horretatik zetorren eskumiku horrek, gainera, erregetzatik kentzea suposatzen zuen, Frantziako errege zismatikoarekin elkartu zirelako, aitasantutzaren aurka: «Juan eta Katalinari errege ohore, titulu eta dignitateak, bai eta Nafarroako Erresuma, dukerriak, konderriak eta bestelako jaurerri tenporalak eta edozein tokitan dituzten ondasunak eta haien gainean dituzten eskubideak kentzen dizkiegu eta publiko egiten ditugu erresuma, jaurerri eta ondasun guztiak eta horietako bakoitza».

Eta gaztelarren alde egiten zuen, handik aurrera Juan eta Katalina errege-erreginen fidelek harreman horiek apurtzeko: «Erresumako eta aipatu jaurerrietako eta haren muge barruko konderri, gotorleku eta gazteluetako eta lurreko gobernariak, gaztelaniakoak eta ofizialak, baita dukeak, markesak, kondeak, baroiak, nobleak, auzokideak eta biztanleak, beren dignitate, estatu, maila, ordena eta egoera edozein izanda ere, Juan eta Katalinarekin fideltasun zinaz eta gobernu, gaztelania, lanbide, zaintza, feudo, basailutza edo beste edozein gorazarrez loturik egonik haien menpeko direnak, Juan eta Katalinarekiko zin eta gorazarrea betetzeko edozein loturatik eta edozein fideltasun, obediencia eta mendetasunetik absolbituz eta, behe-rago idatzitako zigorren menpe, zeinetan aurka egiten dutenak egitatearengatik berberarengatik erortzea nahi baitugu, zorrotz aginduz hauek Burgos, Calahorra eta Tarazonako elizetan, edo haietako bitan, argitaratu eta hurrengo sei egunetan —horietako bi lehendabizikotzat, bi bigarrentzat eta gainerako biak hirugarrentzat eta azken terminotzat eta ohar kanonikotzat harturik— haien menpe dauden guztiei eta haietako bakoitzari Juan eta Katalinarenaganako, edo haietako edozeinenganako, ohiko obedienciaz aldendu daitezzen eta aurrerantzean errege edo nagusi deitu edo erregetzat edo nagusitzat inola ere aitortu ez ditzaten, baizik eta, zismatiko eta heretikoak diren aldetik, ahal duten heinean, Kristoren gainerako fededunen komunitatik bazter ditzaten. Eta sei egunak iraganda erresumako konderri, unibertitate, hiri, gotorleku, gaztelu eta lur eta bestelako tokietako eta aipatu jaurerrietako aipatu pertsona berezi orok gure manu hau

egiatan obeditzen ez badu, hemendik aurrera haren kontra eskumiku handiaren epaia ematen dugu idazki honetan eta, hiltorian daudenak salbu, edozein indultu apostolikoren aitzakia izanda ere, Erromako Aita Santuak bakarrik absolbitu ahal izango ditu».

Nafarroako Erresuma Gaztelako Koroara erantsi bezain laster, 1515eko Burgosko Gorteetan, Fernando Katolikoak Aita Santuen tituluaren inguruko balorazioa egin zuen, honatx:

El papa Julio, de buena memoria, le proveyó del reino de Navarra por privación que del dicho reino Su Santidad hizo a los reyes don Joan de Lavred e doña Catalina, su muger, rey e reina que fueron del dicho reyno de Navarra, que siguieron e ayudaron al dicho rey Luis de Francia, que perseguía a la Iglesia con armas e con cisma, para que fuese de Su Alteza el dicho reino e pudiese disponer de él en vida y en muerte a su voluntad de Su Alteza (Monreal eta Jimeno, 2011: 26.1. zk.).

2.3. Nafarroa Gaztelako Koroara eransten da

Konkistaren azalpenak ez ziren batere sinesgarriak izan eta, beharbada, horrek eragina izan zuen Nafarroako erakunde tradizionalak eta foruen sistema errespetatzeko orduan. Indar militarren bitartez, Pirinioetako erresumak amore ematea lortu zuten, baina, agian, «itundutako» eta «hitzartutako» amore ematea izan zen, kontuan hartu behar baita konkista zein nazioarteko baldintzatan egin zen, Aita Santuaren bulden laguntzarekin. Baldintza horiek, zalantzarik gabe, eragina izan baitzuten prozesu horretan. Nafarroa 1515ean gehitu zitzaion Gaztelako Koroari, zuhurtzia handiz prozesu horretan etenaldi bat egin eta gero. Gaztelako Koroari atxikitzea kontu erabakigarria izan zen erresuma konkistatu berriaren etorkizun politiko eta instituzionalerako. Hasiara batean, bazirudien eransketa hura ohiz kanpokoa zela, konkistatzailea Aragoiko errege zelakoz eta, arestian aipatu bezala, irabaziriko ondasuna bestelako ondare-ondasunen izaera berekoa. Albako dukeak, 1515eko Burgosko Gorteetan, hauxe esan zuen Aita Santuen kontzesioaren inguruan: «*Fuese de su Alteza el dicho reino y pudiese disponer dél en vida y en muerte a su voluntad*» (Monreal eta Jimeno, 2011: 26.2. zk.). Hura zela-eta, Fernando Katolikoak hiru gauza egin zezakeen: Aragoiko Koroan sartu (han bera zen errege), Gaztelakora erantsi, edo berarekin lotura zuzena mantendu, inolako koroarekiko bitartekotzarik edo egiturarik gabe. Orduan Aragoiko errege eta Gaztelako gobernadore eta administratzaile zen. Dirudenez, gaztelarrak ez zeuden oso pozik berarekin, konkistaren esfortzu militarra haien lepora erori zelakoan baitzeuden. Monarka zaharrak ez zuen istilurik nahi, eta Nafarroa koroa nagusira eranstea onartu egin zuen, hau da, Gaztela eta Leongo Koroara.

Hala eta guztiz ere, Nafarroa erantsi zenean, zentralizazio goiztiarra zen Gaztelako Koroaren ezaugarri nagusietako bat. Gaztelako Koroaren izaera politikoaz aritu diren autorerik gehienek atzerago jartzen dute estatu modernoaren jaiotza —Monarkia absolutu gisa—, Errege-erregina Katolikoekin, hain zuzen ere, Erdi Aroko zenbait aurrekari badaude ere. Isabel eta Fernandoren eta, batik bat, 1521eko Komunitateen gerraren ondoan, haien biloba Karlos I.aren garaiaz geroztik, monarkaren inguruan biltzen zen botere politikoak ez zuen mugaketa instituzional garrantzitsurik izan. Alabaina, Lalinde eta Torres bezalako autoreek XIII. mendera aurreratzen dute errege-autoritarismoaren ezarpena, nahiz eta 1348ko

Alcalako Ordenamendura arte legezko ez bihurtu. Izan ere, badaude zenbait elementu autoritario Behe Erdi Aroan: erregeak legeak emateko ahalmen osoa zeukan, goi-mailako justizia beretzat gordetzen zuen eta izaera-lotura lehenesten zuen beste guztien gainetik. Bestalde, Aita Santuen boteretik independente zen eta Eliza kontrolpean zuen, eta zuzenbide orokorrak tokiko zuzenbideak albo-ratzen zituen. Gaztelako estamentuek ez zuten erregearen boterea mugatzen: Elizak eta nobleziak botere ekonomiko eta soziala kontserbatu bazituzten ere, uko egin zioten botere politikoari.

Nafarroako 1512ko konkista eta eransketaren garaian, Gaztelako estatu autoritarioa egonkorturik zegoen, eta, ildo horretan, berdin dio jatorria XIII. eta XIV. mendeetan izateari, nahiz XVI. mendearen hasieran izateari. Kontua hurrengo galdera hauen erantzunetan datza: zergatik Nafarroak, Gaztelako Koroara erantsitako erresuma penintsular bakarrak (Portugalen kasua albo batera uzten dugu), jasan zuen atxikiriko estatuaren alderantzizko bilakaerarik? Zergatik, konkista ondoan, areagotu ziren era nabarmenean Nafar Konstituzioaren bereizgarri paktistak? Are gehiago, zergatik aldatu zuen konexioaren izaera, konkista militarra batasun *eqüepincipal* bihurtuz?

3. Nafarroako Erresumak estatus politikoa mantentzen du

Albretakoak berriro erregetzan ezartzeko ahaleginak behin betiko bukatu ziren Noainen, 1521eko ekainaren 30eko arratsalde hartan eta geroko Amaiurko gazteluaren defentsan. Pirinioen hegoaldeko Nafarroa osoa, une horretatik aurrera, «egokitze», «moldatze» eta «antolatze» fase batean sartu zen, Gaztelaren nagusitasunaren ondorioz sortutako goera berrian.

3.1. Estatus politikoaren mantentzea

Konkista zehazterakoan, Fernando Katolikoak dinastia-aldaketa soil gisa aurkeztu zuen, eta ideia hura berehala islatu zen, 1516an, erregearen izenean zin egiteko erregeordeen formularen. Honela zioen: «*Non obstante la incorporación hecha deste reyno a la Corona de Castilla, quede de por sí y segunt hasta aquí ha sido*» (Huici, 1963: 261). Handik aurrera, erregeorde guztiek zin egiteko formula bera errepikatu zuten. Mende bat beranduago Nafar Gorteek beste definizio bat atera zuten termino desberdinak erabiliz, bertan honako hau adierazten zen Gaztelarekiko loturaren inguruan (*Novísima Recopilación*, 1. liburua, 1. titulua, 1. legea): «*En unión eqüepincipal conservando cada reino su personalidad tanto en territorio como en legislación y territorio*». Beste mende bat geroago, 1777an, Gaztelako Kontseiluko Fiskalak aipatutakoaren arabera, Gaztelako zuzenbideak (zehazki, «Partidak» izenekoak) Nafarroako ordenamendua aldatzeko ahalmena zeukan. Diputazioak honako hau adierazi zuen handikiro: «*Ningún Derecho de un Estado puede tener fuerza en otro*»; eta gaineratzen zuen: «*Jamás ha tenido Navarra dependencia alguna de Castilla para que ésta haya podido darle principios ni reglas algunas de gobierno, pues antes hubo leyes y reyes en Navarra que las hubiere y que se pudiese formar el Derecho que se alega de Castilla*» (Huici, 1963: 290-291; Monreal eta Jimeno, 2011: 165. zk.).

3.2. Gorteak mantendu eta indartu egin ziren

Gorteak erabat sendoturik sartu ziren Aro Modernoan. XIII. mendean, Europako beste leku batzuetan bezala, estamentuen batzarra egin zen, kezka berdinak zituztelarik, alegia, erresumako oinordetza-araudia kontrolatu eta betearaztea, Foruen zina jasotzea, aldi berean, fidelitasun- eta mendetasun-zina egitea erresumaren izenean, laguntza- edo subsidio-eskabideak jasotzea eta erresumak pairaturiko bidegabeak aurrez erreparatzea. Aurrerago berriz arituko gara estamentuen adierazgarri den instituzio horretaz. Hemen, konkista ondoan izaniko berebiziko zabaltzea aipatzen dugu besterik ez.

3.3. Oinordetza-legeak ez aplikatzea

Arlo horri dagokionez, eta beste koroa batera eranstearen ondorioz, aurretiko aroan formulatu eta aplikaturiko oinordetza-legeak deuseztatu egin ziren Nafarroako Erresuman. Gogora ekartzeko modukoa da, Nafarroako errege-erreginen oinordetza-araudiari erreparaturik, emakumezko bat oinordeko izanez gero, senarrak, bere izenean, erresuma gobernatzeko ardura hartzen duela, harik eta haien seme-alabaren batek 21 urte bete arte. Bestela, emaztea hil eginez gero, senarrak gobernuburu izateari uzten dio, Gorteek oinordeko legitimoa izenda dezaten. Erregentziako Kontseiluak hartuko du erabakia. Ikuspegi horretatik argi dago, Nafarroan, Filipe V.a borboitarrek ezarritako Lege Salikoak kontraforua ekarri zuela, oraindik bizi-bizirik zeuden Erresumako Gorteek berretsi egin ez zutelakoz. Aitzitik, nafar zuzenbidearen arabera, Isabel II.aren oinordetza zuzena izan zen, alderdi karlistak nafar lurraldean agintzen bazuen ere.

3.4. Erdi Aroko planteamendu paktistaren iraupena.

Foruak: erregearen zin egitea

Gorteak eta Diputazioa, erresumako estamentuen ordezkari gisa, bitzta publikoaren erreferentzia-erakargunetako bat izan dira Aro Modernoan, monarkaren pertsonifikazioa diren erregeorde eta Kontseiluaren mailan daudelarik. Nabarmendu beharra dago Nafarroako eta Baskongadetako paktismoak indarrez iraun zuela Austriar Etxearen eta borboitarren garaietan. XVI. eta XVII. mendeetan barrera, praktika paktista desagertu egin zen Gaztelan eta, XVIII. mendearen lehen bi hamarkadetan, Aragoiko Koroaren instituzio-sare osoak —kontzepzio paktista batean oinarritua— behea jo egin zuen. Beraz, borboitarren estatu moldakor, unitario eta absolutua eraikitzeko absolutismoren bultzadaren (ia eutsiezina) aurrean, benetako bitxitasun historikoa da, Despotismo Ilustratuaren mendean, erregearekiko harremanean praktika paktistak kontserbatzeko euskal lurraldeek izaniko nahi setatsua. Gainbehera etorritako Espainiako Monarkiaren kultur politikoak badirau probintzia salbuetsietan oraindik ere.

Nafar paktismoaren kontaketa mitikoa Foru Orokorrean bildurik zegoen, XIII. mendearen erdialdeko usadioaren idazketa zena. Bi mende geroago, testu hura gehitu zitzaion Nafarroako errege-erreginei buruz Vianako Printzeak eginiko Kronikari. Garai hartantxe, aragoiarrak iturri beretik hasi ziren edaten, XVI. mendean justiziaren funtsezko mitoa eta zin-egitearen elezaharra egite aldera. Maila txikiko landa-nobleziaren talde handiak eta hiribildu berrietako —Erdi Aroko testuetan

behin eta berriro Nafarroako *herria* deituak— biztanleriak pisu handia zuen orduko gizarte-egituran, eta material haietan errege-erreginekiko praktika paktista indartzeko elementuak topatzen zituzten.

XIII. mendearen erdialdean, Foruak zin egiteko instituzioa ongi perfilaturik zegoen. Foru Orokorraren I. kapitulua nafar konstituzio-ordenamenduaren bizkarrezurra zen. Edukiak apenas izan zuen aldaketarik foru-erregimena desagertu arte XIX. mendean. Erregeak komunitatearen eskubideak hobetu eta ez okerragotzeko konpromisoa hartzen zuen, eta zin eginikoaren kontra eginez gero, erregeari obeditzeko betebeharez libratzen zitzairen nafarrei. Era berean, gorteak deitzeko obligazioa zuen garrantzizko gai zehatzetan —*hechos granados* (gertakizun aipagarriak)—, bai eta errege-erreginek izendaturiko karguetan atzerritarren presentzia mugatzeko ere.

1512an, erresuma konkistatutakoan, zin egitekoa gauzatzeko posibilitatea izan zen agerturiko lehen arazoa; izan ere, oinordetza zuzena izateko, erregegaiak erresumako jaraunspen-legeetan ezarritako baldintzak bete behar zituen. Hala eta guztiz ere, zin egitea *de facto* gauzatu zen. Tartean Aita Santuen erresumaren titularitatea zegoen, eta lehen Gorteetara beaumontarren fakzioa joan zen. Nahiz eta, Erdi Aroaz gerostik, zin egiteko formula bere horretan mantendu (han, nafar ordenamenduaren kontrako errege-ekintzen baliogabetasun-bermea indartu zen), formaren aldetik aldaketa batzuk egin ziren. XVI. mendean, zin egiteko ekitaldia Gorteetan baitan gauzatzeko eskakizuna mantentzea lortu zuen erresumak, alabaina, errege-erreginen presentziarik ezean, zedula bidez egiten zen. Zinaldiari zegokionez, monarkiak gero eta errezelo handiagoak erakusten zituen Gorteen deialdiak egiteko, horrenbestez, zin egitearen handitasuna eta paktu-esanahia baliogabetzen zen. Betekizun formalak erregeordearen zinaldira eraman ziren, nahiz karguaz jabetzen zenean, nahiz Gorteen amaieran.

3.5. Erresumako zuzenbidea babesteko bitartekoak

Aro Modernoan barrena, antolamendu juridikoa (errege-zinak bermaturikoa) mantentzeko zenbait mekanismo instituzional jarri ziren. Konkista egin zen unean, erresumako zuzenbidearen kontrako ekintzen baliogabetasun osoa aitortu egin zen. 1513an, Comares-ko markesak zin eginikoaren arabera, ordenamendu juridikoaren kontra jo izatekotan, «*los dichos estados e pueblos del dicho reyno de Navarra no sean tenidos de obedecer en aquello que hera benido en contra en alguna manera, ante todo sea nulo e de ninguna eficacia y valor*» (Monreal eta Jimeno, 2011: 24. zk.). Hurrengo urtean, Iruñeko Gorteetan eraginkortasuna maila etengarrira beheratu zen: «*Lss tales cédulas emanadas de nos, aunque sean obedecidas no sean cumplidas, fasta que sean consultadas con nos*»³.

Eraginkorra izateko, «**obeditu, baina bete ez dadin**» formulako printzipio orokorra gorpuztu beharra zegoen prozedura bidez. Hartara, XVI. mendearen azken laurdenera arte ez zen erresumako Diputazioa agertu, hortaz, Errege Kontseilua eta erregeordea izan ziren hasierako protagonistak, Kontseiluak **foru-baimeneko eskubidea** aplikatuz, eta bigarrenak, orde, betearazteko agindurekin: **bete dadin**. Biek, erregearen menpeko organo zirenez, ontzat eman zitzaireten

3. *Novísima Recopilación*, 1. liburua, III. titulu, 2. legea, 30. eskaera, ordenantza zaharrak.

Madrileko Kontseiluetatik iritsiriko ebazpenak, bai eta erresumako zuzenbidearen kontrakoak zirenak ere, **bidegabea** sortuz, eta haren ondorioz, **erreparoa**ren beharra, XVI. mendean eta XVII. mendearen lehen erdialdean, errez erdiets zitekeena, Gorteak maiz biltzen zirelako. Haatik, batzartzeko deialdia luzatzen hasiz gero, praktikotasunari begira, errege-xedapenen legezkotasunari buruzko azterketa eta aurretiko txostena Gorteetako organo iraunkorraren (erresumako Diputazioa) esku uzteko aukera aztertu egin zen, xede horretarako, 1692an, **foru-pasea** deituriko instituzioa sortu egin zen. Beraz, arras garrantzizkoa da, urte hura erreferentziatzat harturik, aurretiko eta geroko kontrol-prozedurak bereiztea. Hemen bigarren fasearen deskripzioa egiten dugu, hau da, erresumaren amaierara arte iraun egin zuena (1841ean). Fase hartan, konkistatik agertuz joan ziren mekanismoak eta prozedurak metatu eta sartu egin ziren.

Komenigarria da Gaztelako orduko egoera kontuan hartzea, Nafarroan gertatzen zena ebaluatze aldera. Benjamin Gonzalez Alonsok erakutsitakoaren arabera, gaztelar Aro Modernoan, errege-botereak presionatuz gero, zuzenbidearen kontrako eskutitzak ia-ia eutsiezinezkoak ziren, eta, gehienez ere, *obeditu, baina bete ez dadin* gaztelar formula erregutze-errekurtsoaren hasierako izapide soil bihurtu zen. Hartara, Gaztelan Erdi Aroko instituzio hura desagertzeaz bazen ere, Nafarroan garatu eta modernizatu egin zen, nolabaiteko konplexutasuna hartuz.

Aurretiko paragrafo batean esanikoa aintzat harturik, 1692. urteaz geroztik, kanpotik etorririko arauen aplikazioa hiru une edo mailako prozedurari loturik zegoen, hona hemen: erresumako Diputazioaren foru-pasea, irizpen loteslea ematen zuena, Errege Kontseiluaren foru-baimena eta erregeordearen «bete dadin». Prozedura urratzeak edo modu okerrean aplikatzeak bidegabea eta ondoriozko erreparoa sortzen zituzten.

Aipatu berri dugun urte hartan, Lizarrako Gorteek, Nafarroan aplikatu nahi ziren errege-xedapenak —eduki militarrekoak izan ezik— Diputaziora eramatea erabaki zuten, haien legezkotasunaren gaineko iritzia adieraz zezan. Xedapenak onetsitakoan, **foru-pasea** jasotzen zuten.

1556. eta 1561. urteetatik aurrera, Errege Kontseilua zen **foru-baimena** emateaz arduratzen zena⁴, era berean, bazuen zerikusia Diputazioak aurreraturiko legezkotasun-azterketarekin. XVIII. mendearen buruan, bi esku-hartze haiek alderatuak izan ziren *exequatur* deiturikoarekin (monarkak, Erromatik zetozen ebazpenei aplikatzen zien erret onespena).

Bete dadin izapide bidez, betearazpen-aginduak ematea zegokion monarkaren ordezkari zen Nafarroako erregeordeari.

Foru-pasea edo foru-baimena egonda ere, baldin eta erresumako zuzenbidearen kontrako xedapenak insistentziaz aplikatu edo betearazten baziren, **bidegabea** sortzen zen, eta haren ondorioz, **erreparoa**ren beharra zegoen. Erresumak erreparoa gauzatzea eskatzen zuen.

4. *Novísima Recopilación*, 1. liburua, III. titulua.

Bidegabearen legezko definizio batek honako hauek hartzen ditu barne: egitez eta eginbeharrak ez-eginezko kontraforuak, kontraforua gehitu, zuzendu, aldatu, mudatu, deitzeagatik⁵... Bestalde, praktikoei bidegabeei edo kontraforuei buruzko sailkapena egin zuten, nafar ordenamenduan eraginiko urraketaren maila kontuan edukirik. Gorteetan ematen ez ziren arauak legetzat hartzea izaten zen betegabe orokorrik azpimarragarriena, arauen ordena hierarkikoa aldatu eta erresumako Konstituzioan eragina izaten zutelakoz. Halaber, bigarren mailako arauen bidez, batzarretatik etorritako legeriaren kontra egiteak betegabea zekarren (adibidez, erregeordearen despatxuak edo Errege Kontseiluan erabakiriko autoak). 1561ean, Zangozako Gorteak, erresumako legeen kontrako eraso normatiboaz aritu ziren, honakook ezin zirela egin xedatuz: «*Dispensar, derogar, alterar o mudar, ni hacer disposiciones generales, sin pedimento de los tres Estados*» (Monreal eta Jimeno, 2011: 69. zk.). 1668ko eta hurrengo urteetako Gorteek erregeordearen premiazko legeen edo Errege Kontseiluan erabakiriko autoen inguruko iritzia eman zuten.

Halaber, erregearen menpeko, estatuko zein erresumako administrazio- edo epai-organoek sorturiko kontraforuez edo betegabe partikularrez arduratzen zen erreparoa, erakundeei edo partikularrei nafar ordenamenduan aitorturiko eskubideetan eragina zutelakoz. Kasuistika arras zabala zen eta denbora pasatu ahala, aldatu egiten zen.

Praktikan, Diputazioko sindikoei zegokion memoriaren prestaketak egin ondoren, hiru aldiz aurkezten zioten erregeordeari. Hark uko eginez gero, monarkaren esku jartzea eskatzen zen, dekretu bidez, bidegabearen erreparoa onar zezan edo ez. Erreparoa lege-izaera zuen Gorteetan, legea hala izapidetzen baitzen. Erreparo-eskaera guztiek *pedimentu-rola* deiturikoa osatzen zuten.

Bidegabeen erreparoa lehentasuna zuen nafar ordenamenduan. Gorteek haien zuzenketan ziharduten bereziki, eta lehen puntua zen batzarren gai-ordenan. Araudian ezarritakoaren arabera, gainerako gaiak ez ziren jorratzen —kasu baterako, erregearen zerbitzuen eskaerak (funtsezko gaia zena)— harik eta aurkezturiko pedimentuak kontsideratu arte. Horrez gain, bidegabeen erreparoa egokiarik ezean, Gorteek ez zuten bilera amaitutzat ematen, are gehiago, baldin eta funtsezko eskakizun hura betetzen ez bazen, ez zen Gorte berrien deialdirik egiten.

Bidegabeei zegokienez, Aro Modernoan barrena, Gorteetako legezko praxiak batzarren ebazpenetan du euskarria. 1505ean, hau da, konkista aurretik, hauxe zegoen ezarritik: «*Las cosas que los tres Estados suplican sean reparadas antes de entender en otra negociación*» (Huici, 1963: 27), eta 1534an adierazitakoaren arabera, zerbitzuaren baimena eman baino lehenago, bidegabearen erreparoa erdietsi beharra zegoen. Hogeita sei urte geroago, erregea izan zen konpromiso hau hartu egin zuena: «*No llamar a las Cortes Generales de este reino sin que primero por nos sea respondido a los agravios*» (Monreal eta Jimeno, 2011: 130. zk.). Hurrengo mendeetan, ildo bereko zenbait xedapen eman ziren. Gorteek salbuespenezko kasuetan soilik alboratzen zuten lehentasunezko printzipioa (bidegabeei buruzko tratamenduari eta ebazpenei zegokiena), betiere, salbuespen-inguruabarren egoeretan eta eskaturiko erreparoa konpontzeko nahikoa baldintza

5. *Novísima Recopilación*, 1. liburua, 3. titulua, 4. legea.

zegoela argiro uzten bazen. Huicik aipatutakoaren arabera, 1549, 1551 eta 1637ko bilkuretan honako hau adierazi zen: «*la costumbre antiquísima del dicho reyno era que antes de que se hiciese el otorgamiento y servicio voluntario fuese desagraviado de sus agravios generales y particulares*» (Huici, 1963: 215).

TESTUAK

1

1512ko uztailaren 21a.

Julio II.aren *Pastor ille caelestis* bulda.

AGS, *Patronato real. Bulas sueltas*, Leg. 21, 64. zk. Originala. Pergaminoa.

Latinezko edizioa: PRADERA, *Fernando el Católico y los falsarios de la Historia*, Madril: Imprenta Rivadeneyra, 1922, 2. zk., 435.-441. or.

Gaztelaniazko itzulpena: GARCÍA-GALLO, *Manual de Historia del Derecho español. II. Antología de Fuentes del Antiguo Derecho*, Madril: Egileak argit., 1977, 834 zk., 599.-603. or.

Itzulpena: Espe Aranburu (Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkarte).

Julio, apezpikua, Jainkoaren mirabeen mirabea, gauzaren betiko oroime-nerako. Zeruko Artzainak, gizakiaren salbaziorako —zein Satanas prebarikatzaileak betiko heriotzaz galarazi baitzuen— Lurrera jaisteari, giza haragiaz janzteari eta gurutzean heriotza pairatzeari muzin egin ez ziela, zeruetara itzuli zenean eratu zuen bere bikarioa lurrean, Jaunaren artaldea —bere pasio sailduak berrerositakoa— ororen gainetik zaindu zezan eta, bere esku zegoen heinean, gaitzetik babestu zezan eta kortxilaren barruan —hau da, Egiaren bidean— manten zezan; eta, aitzitik, sendatu nahi ez zuten segaz moztutako ardiak, beren kutsadurak besteak galbidera ez zitzan, kortxiletik kanpo bota zitzan eta, kide haratustel eta usteldu gisa, buru sendotik errotik erabat atera zitzan. Horregatik, Guk, zeini bikarriotza honen eginkizuna goi mailako xedapenez agindu baitzaigu, uste dugu gure esku utzitako artaldea modu atseginagoz zaintzen dugula eta gure esku utzitako lanbidearen zamak hobeki betetzen ditugula deabruren amarruek inguratutako kristauak zaintzen ditugunean eta haietatik babesteko aitaren karitatearekin kargu hartzen diegunean, eta horietakorik temati direnak eta aitaren karitatea saihesten dutenak seme umil eta onen bilkura eta gizartetik bereizten ditugu.

Baina, min handiaz esaten dugu, aurreko egunetan Luis [XII.a] frankoen erregeak, Alfontso garai batean Ferrarako dukeak eta orduan gure aurka eta Egoitza Apostolikoaren aurka setakeriaz matxinaturik, ... [*Aita Sanduaren kontra gerra egin eta hainbat kardinalekin zisma bat sustatu zutenez, horren guztiaren gorabeherak zehazten dira*] ... eta Guri eta aipaturiko Elizari, Errepublika kristauaren estatu guztiari bezala, maila espiritualetan eta mundu honetako mailan artegatzen ahalko zuela iruditzen zitzaigun ezer egiteke utzi gabe, ezein erreguk, ez gureak ez errege eta printze kristau askorenak, ezta Jainkoarekiko edo gizonekiko beldurrak ere, haien oso jukutria gaitzesgarrietan atzera eginaraztea lortu gabe, aitzitik haien bortizkeria egunez egun handiagotzen baitzen, eta auzoko eta etxeko etsaiei eutsi ezin bagenien itsasoz haraindikoak menperatzea

sarri pentsatzea alferrikakoa zela bagenekienez, Espiritu Sainduaren aholkuari jarraikiz, Aragoiko eta bi Sizilietako errege katoliko Fernando Kristorengan seme oso maitatuarengana eta aitoren seme Leonardo Loredan venetarren dux eta nagusiaren seme maitatuengana jo genuen horrelako indarkeriaren aurka gure eta Elizaren laguntzan etor zitezten, eta haiekin —benetan katolikoa den errege bati eta erlijio kristauko aitoren semeei dagokien bezala, horretarako erabat prest aurkitu genituela—, gure izenean eta Elizaren izenean, Elizaren duintasuna eta askatasuna babesteko eta zisma izugarri kaltegarria baretzeko, hitzarmen hautsezina egin genuen. Horrekin bat egin zuen, bere borondatez, Ingalaterrako errege leinargi Enrique Kristorengan seme oso maitatuak, eta ezarri genuen konfederatutako bakoitzarentzat, Guretzat eta aipatu Egoitzarentzat, hitzarmenak irauten duen bitartean, gerra arazoak komunak izan zitezten...

Baina Luis errege horrek... ..egunero armada berriak prestatzen ditu Egoitza honen aliatuen kontra, haren eta zismatikoen saio adeigabeei aurre egiteko Guregatik eta Egoitzagatik armak hartu zituztenen kontra, eta, ahal duen aldiro, beti Egoitzarenganako deboziozko herriak izan direnak, nagusiki euskaldunak eta kantabriarrak eta aldamenekoak, Guganako eta Egoitzarenganako deboziotik aldentzen saiatzen da iradokizun faltsu eta erratuen bitartez eta aliatu horien aurka bere sariekin lotzen saiatzen da, aginte apostolikoa mespretxatuz, eta zismatiko horiekin fededunen elkartetik at bizi diren kristauen arimak arriskuan jartzen ditu eta Eliza nahasten du, askorentzat eredu kaltekorra eta eskandalua izanik.

Horregatik Guk, bai zismatiko horiek eta Luis erregea eta zismatiko horien laguntzaileak zapaltzeko, ahal dugun bezain pronto Jainkoa lagun, horrela errazago beren asmo maltzurak utz ditzaten eta beren ariman aholku onuragarria jaso dezaten, bai, gizon horien engainuak direla kausa, jende onak eta xumeak beren lañotasuna dela eta, bide zuzenetik ezjakintasunak baztertuak izan ez daitezten, erabakia hartuz, aginte [apostoliko] horregatik, hau guztia kontuan hartuz, Kristoren sinestun guzti-guztiei, bereziki ondoko tokietan bizi diren kantabriarrei eta euskaldunei, *latae sententiae* eskumiku nagusiaren mehatxupean, zeinetan eroriko diren aurka aritzen diren guztiak, aurka aritzeagatik, markes, duke, errege, Aita Santuaren duintasun eta aginteaz edo zeinahi aginte eklesiastiko edo mundukoaz nabarmentzen badira ere, hau Zaragoza, Calahorra, Burgos eta Elnako elizetan, edo horietako batean, argitaratu eta hiru egunetara, eta, hilzorian daudenak salbu, Erromako Aita Santuak bakarrik absolbitu ahal izango ditu, ez beste inork ezta edozein ahalmen apostolikoren aitzakian ere, agintzen diegu zorrotasun osoz, Jainko guztiahaldunarengatik, Gure kontra edo gure edo Egoitzaren aliatuetako baten kontra armak hartzen saia ez daitezten, gure edo haien arma jendeak izan, edo Luis erregearen edo zismatiko horien edo haien laguntzaileen alde soldata pean aritzen, edo haiekin hitzarmenik edo ligarik sinatzen; eta dagoeneko soldata jasoa dutenek edo armak hartu dituztenek edo hitzarmena egin dutenek armak gure alde eta guri eta aliatuei laguntzeko itzul ditzaten edo, bestenaz, berehala bazter ditzaten eta aliantza kondenagarri horretatik urrundu daitezten, honen bitartez bertan behera uzten baitugu, nahiz eta zinaren loturaren edo beste edozein lotura finkoren bitartez indartua suertatu.

Baina, Jainkoak bere errukiarengatik ez dezala utz, batzuek gogor eginen balute, eta eskumiku epai honi beste hiru egunez gogo gogortuaz buru eginen baliote, azken hiru egun horiek iraganik, haiek eta haietako bakoitza, dagoeneko anatematizatu eta madarikatu egiten ditugu eta betiko galmeneko lakioarekin lotzen ditugu eta Erromako Elizarengandik edo beste batengandik jasorik dituzten feudoez, emakidez, indultuez, dohainez eta pribilegioez, espiritualez edo mundu honetakoez, eta ohore eta duintasun oroz gabetzen ditugu eta adierazten dugu eskumikatuak, anatematizatuak, madarikatuak, betiko tormentura kondenatuak, desjabetuak —lehen esan bezala—, testamentua egiteko aktibo eta pasiboki ezgaituak eta legezko egitate orotarako gaitasungabeak eta estatuaren hobendun direla, aginte eta eskumen apostolikoaren osotasun berberarengatik; eta publiko egiten ditugu haien ondasun guztiak eta nahi, ezarri eta dekretatu egiten dugu hartzen dituenak bere egin ditzan. Eta zigortu horiek zapaltzen dituzten hiriak, gotorlekuak, lurak eta tokiak, haiek bertan bizi diren bitartean eta handik alde egin eta hurrengo hiru egunetan, interdiktu eklesiastikoaren pean jartzen ditugu. Eta gainerako fededunei, anatematizatu eta madarikatu horiekin hemendik aurrera harremanik ez izateko eta merkataritzan ez aritzeko eta haiek, haien kutsadurak eraginda Jainkoaren amorruan ez erortzeko, jentil eta publikanoak balira bezala, saihezi eta haiengandik alde egin dezaten...

Erroman emana, San Pedron, Jainkoaren Gizakundearen urtea den 1512ko abuztuko kalenden 12an [*uztailak 21*], gure aitasantutzaren bederatzigarren urtean.

2

1513ko otsailaren 18a.

Julio II.aren *Exigit contumacium* bulda.

AGS, *Patronato real. Bulas sueltas*, Leg. 21, 63. zk. Orig. pergaminoa.

Latinezko edizioa: PRADERA, *Fernando el Católico*, 3. zk., 442.-449. or.

Gaztelaniazko itzulpena: GARCÍA-GALLO, *Manual*, II, 836. zk., 604.-611. or.

Itzulpena: Espe Aranburu (Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkarte).

Julio, apezpikua, Jainkoaren mirabeen mirabea, gauzaren betiko oroimenerako. Setatien ausarkeria tematiak eta gaizkileen ausarkeria kaltegarriak eskatzen dute Erromako Aita Santuak, zeini Jainkoak lurrean herrien eta erreinuen gainean erabateko boterea eman baitio, bere ohiko errukitasuna ahaztuta, Jainkoari egin-dako irainengatik mendeku hartzeko grina handiagoz jo dezala gaizkile eta setatiek gainerako gizakien gainean duten agintea eta haien zigorgabetasunaren ausardia handiagoak diren neurrian, askorentzat agindu apostolikoak mesprextatzeko eredu eta akuilu aise bihur litekeelako, eta horrek, segur aski, Eliza Katoliko Sainduan eta Errepublika kristau osoan liskarrak eta eskandaluak sor litzake.

Duela gutxi Luis [*XII.a*] frankoen erregea, deabruaren kudeaketa zela-eta, kontziliabulu zismatikoa egin zuten Bernardino de Carvajal, Guillermo de Brissonet, Renato de Prie eta Federico de Sanseverino bere morroiekin lotu

zenez... .. eta modu ireki eta eraginkorrean laguntza, aholkua eta faborea eman zizkienez, zismatikoen eta haien laguntzaile ospetsu Luis erregearen oso saio kondenagarriak errazago erreprimitzeko, zisma hori Jainkoaren alorrean gehiago zabaldu baino lehen erauzteko eta Luis erregea bide okerretik Egiaren bidera ekartzeko, beharrezkoa iruditu zuen, ahal dugun guztian, Luis erregeari berari eta zismatikoei baliabide eta indar oro kentzeak eta, aginte horri jarraiki, Kristoren sinestun guztiei eta bakoitzari, bereziki euskaldunei eta kantabriarrei eta ondoko tokietan bizi diren beste batzuei, nahiz eta markes, duke, errege, Aita Santuaren edo bestelako duintasun eta aginte eklesiastiko edo mundu honetakoaz nabarmendu, *latae sententiae* eskumiku nagusiaren mehatxupean, zeinetan han adieraziriko hiru egunen buruan egitatearengatik berarengatik eroriko baitziren, zorroztasun osoz Jainko guztiahaldunaren izenean agindu genien Gure kontra edo Aragoiko eta bi Sizilietako Fernando Katoliko errege eta Ingalaterrako Enrique leinargi Kristorengan gure seme maitatuetako baten kontra edo gure eta elizaren aliatuak diren venetarren dux eta nagusi Leonardo gure seme maitatuaren kontra edo gure arma-jendeen edo haietako batzuen kontra armak har ez zitzaizten eta Luis erregearen edo zismatiko horien edo haien laguntzaileen alde soldatapean aritzen edo haiekin hitzarmenik sinatzen saia ez zitezen; eta ordurako haien alde armak hartu zituztenek edo soldata jasorik zutenek edo hitzarmenen bat egin zutenek armak gure alde eta guri edo gure aliatuei laguntzeko itzul zitzaizten edo, bederen, orduan berean armak bazter zitzaizten eta aliantza kondenagarritik erabat alden zitezen, Luis erregearekin edo zismatikoekin edo haien bultzatzaileekin hitzarturik egonez gero, orduan berean bertan behera utzi baikenuen, zinaren loturaren bitartez-edo indarturik bazegoen ere. Eta markes, duke, errege edo Aita Santuaren duintasuna izan arren eskumiku epaiari beren arima gogortuaz hurrengo hiru egunetan aurre eginen zioten fededunak, azken hiru egun horiek iraganez geroztik, anatematizatu eta madarikatu egin genituen eta betiko galmeneko lakioaz lotu genituen, eta ohore eta duintasun oroz gabetu, eta aginte eta eskumen apostolikoaren osotasunarengatik adierazi genuen eskumikaturik, mada-rikaturik, betiko tormentura kondenaturik, desjabeturik, lehen esanik dagoen bezala, zeudela eta estatuaren hobendun zirela eta publiko egin genituen haien ondasun guztiak eta nahi, ezarri eta dekretatu egin genuen hartzen zituenak bere egin zitzaizten, orduan egindako idazkian zabalago biltzen den bezala.

Eta galmenaren seme-alabak, Juan, orduan errege, eta Catalina, orduan Nafarroako erregina —Gureganako eta Egoitza Sainduarenganako bere adeitasun eta atxikimenduaz Jainkoarengan konfiantza osoa baikenuen, eta haien salbazioaren alde batez ere idazki hori argitaratu baikenuen, haren bitartez haiek, beren arimen endekatzearen eta Maiestate Jainkotiarrari egindako irainaren aurrean, zismatikoei eta Luis erregeari laguntza emateari justuki uzten ahalko ziotelakoan eta beren bihotza lurrean, merezi izan gabe bada ere, Kristorenak egiten ditugun Guregana itzultzen ahalko zutelakoan—, Fede katolikoaren batasun eta garbitasunaren defentsari eta Elizan militatzen dutenen egoera bake eta lasaitasunean mantentzeari dagokien horretan, zein jakina baita, gure zerbitzu eta manuak umilki gorde eta bete behar izan arren, beren errege lanbidearen eginbeharrak eta kanon sakratuen zentsurek horrela behartzen baitzituzten, hala ere, Juan eta Catalina horiek, espiritu maltzurak inspiraturik, gure manua eta bertan bildutako zentsurak mesprextatuz, hala nola gure nuntzioak berak egin

zizkien oharpen aitatiarrak eta laburbilduta zuzenean erakutsi zitzaizkien gure idazkiak, non zismatikoek eta haien babesleen aurka Kontzilio Lateranense Sakratuarekin bat egiteko eskatzen baikenien, beren penak eta Jainkoarenganako eta gizonenganako ikara mespretxatuz, idazki horiek argitaratu ondoren eta haien epea iraganda, Deabruaren ministro berrien gisan, ausartu ziren Luis erregearekin bat egitera zismatikoak laguntzeko eta Fernando eta Enrique gure eta Eliza Sainduaren errege aliatuek, Guk eta Elizak zismatikoek eta haien babesle eta estaltzaile Luis erregearen aurka jarritako arma gizonen kontra, eta armak hartzera, eta, zismatikoak laguntzeko, gotorleku eta bastioi gisa, garbiki, publikoki eta nabarmenki guri aurre egitera, eta aipatutako zentsura eta zigorretan modu gorrotagarrian erori ziren.

Hortaz, Guk, kontuan harturik aipatu Juanek eta Catalinak Egoitza honen zigor espiritual eta tenporalekiko erakutsitako ausarkeria neurrigabea eta mespretxua, inolako aitzakiak defendatu eta inolako desitxuratzeak konpondu ezin duten egitate iraunkorraren ebidentzia eta sona direla eta (denok oso ongi ezagutzen ditugulako); sona zeinaren lekukotasuna ematen baitugu eta benetan fede ematen baitugu —aurrerantzean sona hori inork zalantzan ez jartzeko moduan—, denbora luzeagoz onartzen baziren fededunen hondamendia eta Eliza unibertsal sailduaren eskandalua eta nahasmena sortu ahal izanen zituztela —are gehiago Deabrua zismatikoek ahotik, toki haietan batik bat, ateratzen hasi den denbora hauetan—, eta horregatik, merezimendu osoz, Jainkoaren haserre erakartzen ahalko genuen Guregana; eta kontuan hartuz zismatiko nabarmen eta haien sustatzaileen kontra zuzenbideari jarraikiz ez dela inolako zitaziorik beharrezkoa, eta Juan eta Catalinaren horren zigor zorrotza ezarri nahian, aurrerantzean horrelakorik egiteko indarririk izan ez dezaten, eta gainerako erregeek eta printzeek adibide hartuta Jainkoa beldurrez zerbitzaten eta lurrian haren bikarioa denaren manuak umiltasunez obeditzen ikas dezaten; honen gainean aipaturiko gure anaiekin sakon eztabaidatuta, eta haien aholku eta adostasunarekin, gure aurretiko Erromako Aita Santu askoren zantzuei jarraikiz, ezen haiek errege eta enperadoreei, arrazoi arinagoengatik ere, zentsura berbera aplikatu zieten, aginte apostolikoarengatik eta eskumen osoz, Juan eta Catalina eskumikaturik, anatematizatuturik, madarikaturik daudela eta zismatiko eta herejeei laguntza emateagatik errudun eta estatuaren eta betiko tormentuaren hobendun direla aldarrikatu eta adierazten dugu, eta errege titulu, ohore eta duintasunez desjabetuak direla, eta haien erresumak, jaurerriak eta edozein ondasun publiko egiten ditugu, eta haien guztia haiez guztiez jabetu edo jabetuko direnek, gerra saildu eta justuenean eskuratu bezala, bere egin dezaten.

Eta zuhurtzia handiagorako, epaiaren bitartez, Juan eta Catalinari errege ohore, titulu eta dignitateak, bai eta Nafarroako Erresuma, dukerriak, konderriak eta bestelako jaurerri tenporalak eta edozein tokitan dituzten ondasunak eta haien gainean dituzten eskubideak kentzen dizkiegu eta publiko egiten ditugu erresuma, jaurerri eta ondasun guztiak eta horietako bakoitza, [18] eta horiek, aipatu idazkiak gauzatu ondoren, Juan eta Catalinaren eskuetatik eta boteretik nolana kendu zizkietenei edo aurrerantzean kenduko dizkietenei —eskubide handiagoa izanik horretan testamentuz edo testamenturik gabe interesa izan nahiko zuen edozein oinordekok baino, ezen horiek, heretikoek babesleen eta estatuen hobendunen

zigorretan sarturik, etorkizunean eta betirako erabat bazterturik daude— ematen dizkiegu eta dohaintza egiten diegu haientzat eta haien ondorengoentzat betikoz.

Erresumako eta aipatu jaurerrietako eta haren mugen barruko konderri, gotorleku eta gazteluetako eta lurreko gobernariak, gaztelaniakoak eta ofizialak, baita dukeak, markesak, kondeak, baroiak, nobleak, auzokideak eta biztanleak, beren dignitate, estatu, maila, ordena eta egoera edozein izanda ere, Juan eta Catalinarekin fideltasun zinaz eta gobernu, gaztelania, lanbide, zaintza, feudo, basailutza edo beste edozein gorazarrez loturik egonik haien menpeko direnak, Juan eta Catalinarekiko zin eta gorazarrea betetzeko edozein loturatik eta edozein fideltasun, obediencia eta mendetasunetik absolbituz eta, beherago idatzitako zigorren menpe, zeinetan aurka egiten dutenak egitatearengatik berberarengatik erortzea nahi baitugu, zorrotz aginduz hauek Burgos, Calahorra eta Tarazonako elizetan, edo haietako bitan, argitaratu eta hurrengo sei egunetan —horietako bi lehendabizkotzat, bi bigarrentzat eta gainerako biak hirugarrentzat eta azken terminotzat eta ohar kanonikotzat harturik— haien menpe dauden guztiei eta haietako bakoitzari Juan eta Catalinarenaganako, edo haietako edozeinenganako, ohiko obedienciaatik aldendu daitezten eta aurrerantzean errege edo nagusi deitu edo erregetzat edo nagusitzat inola ere aitortu ez ditzaten, baizik eta, zismatiko eta heretikoak diren aldetik, ahal duten heinean, Kristoren gainerako fededunen komunitatik bazter ditzaten. Eta sei egunak iraganda erresumako konderri, unibertsitate, hiri, gotorleku, gaztelu eta lur eta bestelako tokietako eta aipatu jaurerrietako aipatu pertsona berezi orok gure manu hau egiatan obeditzen ez badu, hemendik aurrera haren kontra eskumiku handiaren epaia ematen dugu idazki honetan eta, hiltzorian daudenak salbu, edozein indultu apostolikoren aitzakia izanda ere, Erromako Aita Santuak bakarrik absolbitu ahal izango ditu. Eta eskumikatu horiek, aipaturiko sei egunen ondorengo beste hiru egunez eskumiku epaiari, [*Jainkoak*] utz ez dezan, gogo gogortuaz aurre egingen baliote, jadanik epaia larriagotu eta berriro larriagotzen dugu eta aipatutako hiri, gotorleku, gaztelu lur eta aipaturiko toki bakoitza eta bertan sarturik daudenak, katedralak (baita metropolikoak ere), kolejiatak eta bestelako elizak eta monasterioak eta bestelako erlijio eta jainkotiar tokiak, Egoitza honek gozarazi dizkien salbuespenak eta pribilegioak edozein izanda ere, elizaren interdiktuaz lotzen ditugu, eta horrek irauten duen bitartean ez mezarik ez gainerako ofizio jainkotiarrik ezin izanen dute eman (nahiz eta pertsona, ordena edo tokiei ahalmen apostolikoak eman izan, zuzenbideak baimentzen dituen kasuetan salbu; eta hiri, gotorleku, gaztelu eta lurak zeinetako komunitateek edo unibertsitateek hauek obeditzen ez dituzten, eta haietako auzokide eta biztanle guztiak, Egoitza honen emakidaz erabiltzen dituzten pribilegio, indultu eta bestelako dohain, fabore, ohore eta eskumen espiritual eta mundu honetako oroz eta Erromako [Egoitza] horrengandik edo beste eliza eta toki eklesiastikoetatik, feudoz edo betiko edo aldi bateko enfeiteusiaz, jaso dituzten ondare guztiez erabat gabeztzen ditugu. Eta, eskumikatu horietako batzuk aipatutako hiru egunetik hurrengo beste hiru egunez bere bihotzean mantentzen badira eta Guk esandakoari kasurik egiten ez badiote, haiek eta haietako nornahi anatema eta betiko madarikazioaren ezpataz zauritzen ditugu, haiek eta haietako nornahi, zisma eta heresiaren laguntzaile izatearen erailketa beraren errudun diren aldetik, beren semeekin eta ondorengoekin hirugarren belaunaldiraino, eta ohore, titulu eta dignitateez, baita duke eta markesenez ere, eta baroierrri, konderri, markeserri, dukerri eta mundu

honetako bestelako jaurerrienez eta ondasun oroz gabetuz, eta horiek eta antze-koak erdiesteko ezgaituz, eta horiek guztiak publiko eginez, horien jabe egiten direnei eta haien ondorengoei horien gaineko betiko emari eta emakidaren epaia emanik, aipatu eskumenaren aholku, zientzia eta osotasunarengatik, hemendik aurrera, agiri honen bitartez aldarrikatzen dugu eta haiek, ondoko ohar edo deirik gabe, egitatearengatik berarengatik, hartan eror daitezzen nahi dugu.

Erroman emana, San Pedron, Jainkoaren Gizakundearen urtea den 1512ko martxoko kalenden hamabian [1513ko *otsailak 18*], gure aitasantutzaren hamargarren urtean.

Bibliografia

- Horozco, [*De iustitia et iure obtentionis ac retentionis regni Nauarrae* obraren lehenengo liburuaren itzulpena], in E. Bullón y Fernández (ed.), *Un colaborador de los reyes católicos: el doctor Palacios Rubios y sus obras*, Librería general de Victoriano Suárez, Madril, 1927.
- Huici Goñi, M.P (1963): *Las Cortes de Navarra durante la Edad moderna*, Rialp, Madril.
- Monreal Zia, G. eta Jimeno Aranguren, R. (2011): *Textos histórico-jurídicos navarros. II. Historia Moderna*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Nebrija, A. de (1545): *Rerum a Fernando et Elisabe Hispaniarum felicissimis regibus gestarum Decades duae, necnon Belli navariensis libri duo*, Granada. Edizio elebiduna: José López del Toro eta Albako dukea, *Historia de la guerra de Navarra*, Madril, 1953.

